

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2024-2025 denboraldia
(2024ko irailaren 30etik 2025ko irailaren 28ra)

28. astea (2025eko uztailaren 7tik 13ra)

Gripe-birusaren zirkulazioa epidemia arteko balioetan mantentzen da eta ABSrenak beheranzko joerarekin jarraitzen du. COVID-19 kasu kopurua egonkortu egiten da.

- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 147,5 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (218,5/100.000 24. astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasa epidemia arteko balioetan mantentzen da eta bronkiolitisaren tasak beheranzko joera du. COVID-19aren tasak goranzko joerari eutsi dio.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 12 lagin jagoleen % 50,0 baieztatu da. SARS-CoV-2 bat eta gripe-birus bat detektatu dira, ABSik ez.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 8,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (10,1/100.000 24. astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemari, aste honetan, 160 SARS-CoV-2, 4 gripe-birus erregistratu dira, ABSik ez.

AIA Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 147,5 kasukoa izan da (218,5/100.000 24. astean). Lurralde historikoka, tasa 110,3/100.000 izan da Araban, 146,8/100.000 Bizkaian eta 166,0/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen Mailako Arreta-sarea. 2024-2025, EAE




Adin-taldearen arabera, tasarik altuena urtebetetik beherakoen taldean erregistratu da, 100.000 biztanleko 1189,6 kasurekin, ondoren 1-4 urte bitarteko taldea kokatzen delarik 481,9 kasurekin.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuaren (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 56,7 kasukoa izan da (79,1/100.000 24. astean).



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) arabeko intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute ESI guztietan 24. astearekin alderatuta.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE

ESI	Tasa 28. astea	Tasa 24. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	117,9	192,5	0,61 (0,54-0,70)
Arabar Errioxako ESI	246,6	289,1	0,85 (0,52-1,40)
Barakaldo-Sestaoko ESI	119,7	196,6	0,60 (0,50-0,74)
Barrualde-Galdakaoko ESI	148,1	241,8	0,61 (0,55-0,69)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	166,5	241,4	0,68 (0,62-0,77)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	152,2	246,1	0,61 (0,53-0,72)
Uribeko ESI	114,6	162,0	0,70 (0,60-0,83)
Bidasoako ESI	207,2	218,9	0,94 (0,76-1,18)
Debararrenako ESI	162,1	240,3	0,67 (0,53-0,85)
Debagoienako ESI	115,3	155,8	0,74 (0,55-1,00)
Donostialdeako ESI	159,2	206,1	0,77 (0,69-0,86)
Goierrri-Urola Garaiaiko ESI	147,7	308,9	0,47 (0,39-0,58)
Tolosaldeako ESI	190,4	226,0	0,84 (0,66-1,07)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAaren jagoletzaren metodologia](#)

LMako gripe-sindromearen tasa 0,8 kasukoa da 100.000 biztanleko (0,3/100.000 24. astean). Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) behera egin du eta 100.000 biztanleko 64,1 kasutan kokatu da (106,9/100.000 24. astean). COVID-19arenak gora egin du eta 100.000 biztanleko 10,4koa izan da (8,8/100.000 24. astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen Mailako Arretako sarea. 2024-2025, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 12 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 50,0 baieztatu dira. SARS-CoV-2 bat eta gripe-birus bat atzeman dira, baina ez ABSik. 2 errinobirus eta 2 parainfluenza ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMA eta sare jagoleen detektatutako arnas birus kopurua,
aste epidemiologikoaren arabera. 2024-2025, EAE



Gripe-birusaren positibotasuna % 8,3koa izan da aste honetan (% 6,5 24. astean). SARS-CoV-2aren positibotasuna % 8,3an kokatu da (% 19,4 24. astean) eta ABSrena % 0,0an mantentzen da (24. astean bezala). Errinobirusaren positibotasuna % 16,7koa izan da (% 19,4 24. astean).


Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2024-2025, EAE

	28. astea		24. astea		2024-2025 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	1	8,3	2	6,5	527	27,0
SARS-CoV-2	1	8,3	6	19,4	67	3,4
ABS	0	0,0	0	0,0	70	3,6
Metaneumobirus	1	8,3	3	9,7	79	4,1
Parainfluenza	2	16,7	2	6,5	90	4,6
Adenobirus	0	0,0	2	6,5	90	4,6
Errinobirus	2	16,7	6	19,4	338	17,3
Urtaroko CoV	0	0,0	1	3,2	98	5,0
Enterobirus	0	0,0	2	6,5	48	2,5

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik erarortzen direnak. AIAL tasa 8,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (10,1 /100.000 24. astean), 8,4/100.000 gizonetan eta 7,6/100.000 emakumeetan.




Adin-taldearen arabera, tasarik altuena 64 urtetik gorakoen taldean erregistratu da, 23,8 kasu 100.000 biztanleko, ondoren urtebetetik beherakoen taldea kokatu delarik 22,2 kasurekin 100.000 biztanleko.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 0,1ekoa izan da 100.000 biztanleko (0,1/100.000 24. astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena tasa 0,0koa 100.000 biztanleko (0,0/100.000 24. astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,9 kasukoa 100.000 biztanleko (1,2/100.000 24. astean).

**Tasa por temporada y semana epidemiológica.
Red hospitalaria de Osakidetza. 2024-2025, CAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Gripe-birusaren positibotasunak % 1,1an kokatu da (% 2,5 24. astean) eta ABSrena % 0,0an. SARS-CoV-2aren positibotasunak eten egiten du goranzko joera eta % 15,2ean kokatu da (% 15,8 24. astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, EAE

	28. astea		24. astea		2024-2025 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	125	15,2	165	15,8	9648	3,9
Influenza	89	1,1	118	2,5	8504	20,7
ABS	83	0,0	117	1,7	7957	9,5

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2024-2025, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 160 SARS-CoV-2 eta 4 gripe-birus detektatu dira azken astean, baina ez ABSik.

Aste honetan detektatutako 4 gripe-birusetatik, bi A motakoak izan dira, bat A(H1)pdm09 eta bat B motakoa. 2024/40 astetik 9292 detekzio erregistratu dira, 7282 (% 78,4) A motakoak eta 2010 (% 21,6) B motakoak. Azpitipatutako A motako 3678 birusetatik, 2477 (% 67,3) A(H3) eta 1201 (% 32,7) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2024-2025, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2025eko uztailak 16

Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza